

Hamazazpi urte joan dira, nire hel-duaroa ia osoa, hamazazpi urte, Nafarroak eskumen berri bat azkenengoz eskuratu zuenetik, erki-degoko Foru Hobekuntzak esleitzen dizkion artean, trafikokoak (bere, 1962ra arte foruzai-



JIRA
Angel Erro

nen eskuetan egondakoa; beraz, berririk ez da, eta, eskuratu ez, berreskuratu du Nafarroak). Horrek esan nahi du UPNeko Miguel Sanzen agintaldiko hamar urtez eta Yolanda Barcinaren agintaldi osoan, nahiz eta Madrilgo go-

bernu zentralen agintzen zuten alderdiekin hitzarmenak eta harreman ustez onak izan, hots, eskumen berriak esijitzeko posizio ezin hobean egon arren, ez zuten zirkinik egin hainbestetan eta hain arranditsu aldarrikatutako autogobernuaren alde. Halere, ezin dut sinetsi dohainik emanen ziotela unean uneko gobernu zentralari bermea. Ordaina dena dela, argi dago ez zela Nafarroarentzat, noiz eta uste ez badute Nafarroa dela haien interesen pertsonifikazioa dela.

Zaharra da eskumenen jokoa, salerosiko meteta. Espainiak bere buruari eman dion konstituzioan (kontrakoa hainbestetan eta hain arranditsu aldarrikatu arren) serio sinesten ez duelako froga denboran luzatuegia. Ikasi behar dugu hitzei baino ekinztei fede ematen, hitzak gehienetan galga baino ez baitira.

Munduaren norabidea

Homosexual gehienak homosexual dira drogak hartu dituztelako, eta beste gutxiak akats horrekin jaio ziren. Oso gaiztoa eta itsusia da: ez du bortxa dezaten ere merezi. Diktaduraren akats nagusia izan zen jendea torturatzea eta ez



BIRA
Enbeita

hiltzea. Ez dut inor baztertuko, baina gizon bi ikusten baditut kalean elkarri muxuka, jo egingo ditut. Lau seme-alaba ditut: lehenengo laurak gizonak dira, baina bosgarrenean ahuldadeak hartu ninduen, eta emakumea jaio zen. Nire seme bat homosexuala balitz, ez nuke maitatuko: nahiago nuke istripu batean hilko balitz. NBE komunistak biltzeko leku bat baino ez da. Gaizkileek ez badute sei ordutan euren burua entregatzen, airetik metrailatuko ditugu auzo txiroak. Badakit nire semeak ez direla emakume beltzez maiteminduko: ondo kezita dauka. Komunitate beltzek ez dute ezer egiten: milaka dolar gastatzen ditugu urtero haiengan, eta ugaltzeko ere ez dute balio.

Horiek eta horiek baino handiagoak esan izan ditu Brasilgo presidente berriak: nazka. Harridura ere bai, ordea: haren botoen artean badira jende pobreak, emakumeek, homosexualak eta beltzek emandakoak ere. Ez da munduaren amaiera, baina bideak zabaldu eta asmatu behar ditugu munduaren norabidea aldatzeko: derrigor.

Monzon eta Txillardegiren irakaspenak

Pako Sodupe
Idazlea

Monzonek bezala Txillardegik, nazioingotzaren arloan, euskarazko kulturaren alde egindakoagatik (euskara batua, eleberririk, antzerkia, abestiak, prentsa-artikuluak) eta era berean politikak aldetik, zazpi lurraldez osaturiko eskual errepublika independentearen alde egindakoagatik, irakaspen ederrak eman dizkigute, eta gure atxikimendua eta aitortza merezi dute.

1957an ezagutu zuten elkar aurrez aurre: Txillardegik kontatu zigunez, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuzaren Donibane Lohizuneko *Mende Berri* etxean. Eta 24 urtez, bien arteko adiskidetasuna erne, hozitu eta burutu zen, ardatz nagusi honen inguruan: zazpi lurraldez osaturiko eskual errepublika euskalduna lortzeko grina, eta araberako konpromiso eta borroka.

Bide ezberdinetatik zetozen elkartu zirenean. Hogeita bost urte zaharrago zen Monzon orduko dimisioa emana zen erbesteko Eusko Jaurlaritzako kultur sailburutzatik, funtsean, bi arrazoiengatik: konbentzita zegoelako Eusko Jaurlaritzak ez zituela euskara eta euskal kultura behar bezala bultzatzen, eta, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren legitimitate errepublikano espainolari lotuegi zekusalako.

Txillardegik, aldiz, plazaratu zenean nahiko polemiko gertatu zen *Leturiaren egunkari ezkutua* nobela argitaratu berri zen -Albert Camusen *Arrotza eta Izurria* nobelen eraginpekoa, tematika aldetik, mugarri-; aldeko asko -Koldo Mitxelena, Salbatore Mitxelena, Bitoriano Gandiaga, Juan San Martin...- eta aurkakoak ere ugari izan zituen euskal idazleen artean -aita Villasante, Iñaki Bastarrika, Orixe...-, eta politikari dagokionez, Ekin-etik laster ETA sortzera igarotzeko zen gogaideekin batera, Euzko-Gaztedierikiko loturak erabat hautsirik.

Txillardegik 1961eko Urtats egunez Dantxarrieko muga iragan, eta Parisetik bueltan Iparraldean kokatu zenetik, bien arteko harremana hurbilagoa eta usuagoa gertatu zen. Enbata mugimendu abertzaleak Euskal Herri

kontinentalean, Itsasu herrian lehenbizikoz ospaturiko Aberri Egunean (1963) han ziren biak ala biak, eta urte hartan bertan eraturiko Idazkaritzan ere bai, euskara batuaren oinarriak ezartzeko xedez. Jakina denez, Baionan delako Idazkaritzan elkaturiko Lafitte, Davant, Monzon eta Txillardegik, besteak beste, hartutako erabakietan oinarritu ziren 1968an Arantzazun ospatu ziren jardunaldiak. Garbi ikusten da euskal errepublika askatuaren aldeko borroka eta euskararen aldekoa biak elkarri estuki atxikirik bururatzen zituztela bi abertzale handiek.

Txillardegik handik laster desterrura joan beharrean gertatu zen, baina antiguatarra Bruselan, eta Monzon Donibane Lohizunen zirela, gutunez jarraitu zuten harremanetan. Txillardegik ziotson Monzoni gutun horietan, bera abertzalea izateaz gain, sozialista zela, baina ez zuela lekurik PSOE inperialistan, eta horrenbestez behar-beharrezkoa zela gurean alderdi abertzale sozialista. Oso duda gutxiarekin baiezia daiteke Txillardegik eragin handia izan zuela Monzonek gizarte gaietan izandako bilakaeran; Monzon ez zuen sozialista bilakatu Txillardegik -Txillardegik ez zen komunista. Bere burua sozialdemokraziaren ezkerrean kokatzen zuen; Frantzian Mendes-France politikariak ordezkatzen zuen posizioan gutxi gorabehera-, baina bultzatu zuen Monzon EAJ-ko zuzendaritzari eskatzera abertzale berri ezkertiarra goi leku egin behar zitzaiela. Hasiera baten pentsatu zuen EAJ barruan lekuia izan zezaketela Txillardegik bezalako sozialistek, baina laster igaro zen pentsatzera alderdi berean ez, baina haiekin elkaturik bai jokatu behar zela, eta orduan ekin zion Fronte Abertzalea eratzekeo ideari.

Ezaguna denez, Anai Artea sortu zuen Monzonek Larzabal eta Arregi-

rekin batean 1969an, iheslari politikoei babesa eta laguntza emateko. Txillardegik Bruselatik Iparraldera itzuli zenean, Anai Artean iketu zen, eta 1971n Monzonekin eskuz esku Fronte Abertzalea eratu nahian aritu zen Burgosko 1970eko auzi famatuaren ondotik. Aitzakia horrekin Frantziako Gobernuak Monzon eta Txillardegik biak behartu zituzten Iparraldetik alde egitera.

Erabaki horren aurka, Baionako katedralean gose-grebari ekin zioten 35 etakide inguruk. Han ziren, besteak beste, Eustakio Mendizabal *Txikia*, Goikoetxea, Korta, Azkoiti. Harreman horien ondorioz sortu zuen Monzonek esapide giltzarri hura: Lehengo gudariak -1936ko gerrakoak- eta oraingo gudariak -Francoren diktaduraren aurka armak altxatu zituzten etakideak-.

Monzon eta Txillardegik Nogaron, Gers departamenduan, Salles d'Armagnac-en, sei hilabetez bizi izan ziren harmonia ederrean elkarrekin, 1971ko maiatzetik azarora.

Franco hiltzean, Txillardegik itzuli zen Euskadi penintsularrera eta Euskadiko Sozialisten Biltzarra (ESB) alderdia sortzen ahalginduz; eta tartelabur horretan, Monzon bakarrik gelditu zen, baina denbora gutxiarako. Laster elkartu ziren biak Herri Batasunan independente gisa, 1978an -Monzon 1977ko azaroan egotzi zuten EAJ-tik, bere borondatearen aurka-. Horregatik Monzon ez zen bat-batean sozialista ezkertiar bilakatu, jarraitu zuen bere mentalitate kristau-demokratikarekin, baina ongi hartu zuen Herri Batasunan, garai hartan koalizioarentzat garrantzitsua, beharbaia, independentea zelako.

Monzonek hil aurretixean *Egin*-en plazaratu zuen azken artikuluan gerorari buruz hiru oinarri hauek behar genituela oroitarazi zizkigun: 1. Beti ohitu behar dugu Euskal Herria osorik ikusten, Aturrin hasi eta Eboraraino. 2. Euskal Herrian bizi diren biztanleen osotasuna. Beraz, Euskal Herri bat bakarrik dagoela, bai eremuz, bai lurraldez eta baita biztanlez ere aitortu behar dugu; eta 3. Euskal Herriari lokarri bat eman behar diogu. Benetakok herri bat sortu nahi badugu eta bere buruaren jabe izan nahi badu, oinarri nagusi bat behar dugu eta oinarri hau euskara da. Txillardegik ere beste horrenbeste esaten zuen. Horiexek dira bi abertzale handi horien irakaspen nagusiak.

Benetako herri bat sortu nahi badugu eta bere buruaren jabe izan nahi badu, oinarri nagusi bat behar dugu eta oinarri hau euskara da